

AENKOMER-EN ARABAKO ERAKUSLEIHOEN XII. LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Lehiaketaren helburua:

Merkatariak beren erakusleihoak erakargarriago egitera bultzatzea, eta, horrela, Arabako merkataritza sustatzen laguntzea. Aldi berean, merkatariei hiriko ekitaldi horretan parte hartzeko aukera eskaintzea, lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoen dekorazioaren bidez.

2. Izen ematea:

Lehiaketa honetan Arabako merkataritza-saltoki guztiek parte hartu ahal izango dute. Lehiaketan parte hartzeko, udaberrian erakusleiho bat egin behar da. Izena ematea doakoa izango da AENKOMERi federatutako establezimenduentzat, eta 40 euroko kostua izango (gehi BEZa) federatu gabeentzat.

Izen-emateak **maiatzaren 7a** baino lehen egin beharko dira. Horretarako, **945 12 35 00** telefono-zenbakira deitu edo **proyectos@aenkomer.com** helbidera edo mezu elektroniko bat bidali beharko da, inskripzio-fitxa beteta atxikituz, egindako inskripzio-kuotaren frogagiriarekin batera, hala badagokio.

3. Argazkiak bidaltzea:

Saltoki guztiek lehiaketara aurkeztzen duten erakusleihoen argazki bat bidali beharko dute **proyectos@aenkomer.com** helbidera. Udaberriko erakusleihoaren argazkia **maiatzaren 19a** baino lehen bidali beharko da. AENKOMERek edozein hedapen-euskarritarako erabili ahal izango ditu argazkiak.

4. Erakusleihoen erakusketa:

Udaberriko erakusleihoak **maiatzaren 19tik 31ra bitartean** erakutsi beharko dira. Aldi horietan, erakusleihoak argituta egongo dira **goizeko 10etatik gaueko 10ak arte**, eta lehiaketaren bereizgarria leku ikusgai batean jarriko da.

5. Gaia:

Erakusleihoen gaiak udaberrian sortzen diren konposizioetan egon beharko du girotuta, eta loreak eta landareek bertan egon beharko dute, modu konkretuan, establezimenduan saldu ohi diren artikuluez eta/edo produktuez gain, loreak eta/edo landareak diseinatutako multzoaren zati gisa, edo sinbolikoki sartu ahal izango dituzte (adibidez, "paperezko loreak" erabiliz), oro har loreak eta landareak erakusleihoan ikus daitezen.

6. Sari zerrenda:

Hainbat sari emango dira:

BOZKETA TEKNIKO

Lehenengo saria: 800 €+ plaka



Bigarren saria: 500 €+ plaka

Lorea edo landareak erakusleihan hobekien sartzeagatiko saria: 500 €+ plaka

Erakusleio birtual onenaren saria: 300 €+ plaka

Euskara erakusleihan integratze saria: 300 €+ plaka

HERRI-BOZKETA

Herri-bozketa saria: 250 €+ plaka

*** Balorazio teknikoan berdinketa gertatuz gero, tartean diren saltokien bigarren balorazioa egingo du epaimahaiak, berdinketa hausteko.**

7. Herri-bozketaren funtzionamendua:

Herri-bozketa AENKOMERen Facebook-eko orrian jarriko den esteka baten bidez egingo da. Esteka hau parte hartzen duten erakusleio guztien argazkiekin sortuko den album batean agertuko da.

Bozketa teknikoan sailkatutako lehenengo 15 sarietarik boto gehien jasotzen dituen establezimenduak jasoko du herri-saria. **Maiatzaren 19tik 31ra bitartean** eman ahal izango da botoa.

8. Epaimahai teknikoa eta balorazio-irizpideak:

AENKOMERek izendatuko du epaimahaia, eta erakusleio-apainketako profesionalak osatuko dute. Profesionalak banan-banan baloratuko dituzte erakusleioak. Epaimahaikide guztien batez besteko baloraziorik onena lortzen dutenak izango dira sarituak. Epaimahai teknikoak alderdi hauek baloratuko ditu, garrantzi erlatiboaren arabera ordenatuta:

1. Sormena eta originaltasuna 1 - 10 puntu
2. Produktuaren azalpena 1 - 10 puntu
3. Argiztapena 1 - 10 puntu
4. Kromatika 1 - 10 puntu
5. Elaborazioa eta akabera 1 - 10 puntu
6. Bai Euskarari ziurtagiria izatea 5 puntu (* "Euskara erakusleihan integratzea" saria baloratzeko bakarrik baloratuko da)
7. Lorea edo landareak gehitzea 1 – 10 puntu; ezinbestekoa da

Erakusleio birtualik onena honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

- a. Webgunea: irudia, erabiltzailearekiko interakzioa eta erabiltzeko erraztasuna
- b. Sare sozialen presentzia eta erabilera: irudia, erabiltzailearekiko interakzioa eta eguneratzea

9. Lehiaketan inskribatzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

10. AENKOMER antolatzen du eta lankidetzan aritzen dira Arabako Foru Aldundia, Bai Euskarari eta Noticias de Álava Egunkaria.